

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

**ASTIGARRAGAKO UDALA**

**Gizarte Zerbitzuak**

*Iragarkia*

Astigarragako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak - 774/2019 Dekretuaren bidez alkateak eskuordetuta-, 2023ko urtarrilaren 31ko bileran erabaki du Adin txikikoen osasun, hezkuntza eta oro har, garapenaren baitan sortzen diren beharrei erantzuna emateko 2023ko dirulaguntzen oinarri espezifikoak ontzat ematea eta laguntzen deialdi publikoa egitea.

*Adin txikikoen osasun, hezkuntza eta oro har, garapenaren baitan sortzen diren beharrei erantzuna emateko 2023ko dirulaguntzen oinarriak onartzea.*

*Lehena. Xedea.*

1. Oinarri hauen xedea da adin txikikoen osasun, hezkuntza eta oro har, garapenaren baitan sortzen diren beharrei erantzuna emateko lagungarriak izan daitezkeen tratamenduen, kostua edo kostuaren zati bat diruz laguntzea.

2. Oinarri hauen helburua betetzeko, Astigarragako Udala Gizarte Zerbitzuen eta Euskara eta Hezkuntza departamentuen partidaz baliatuko delarik.

*Bigarrena. Edukia.*

Oinarri hauen araututako dirulaguntzak itundu gabeko zentrotan edo gizarteratzeko beste programa batzuetan ematen diren banakako zein taldeko artapenak finantzatzeko dirulaguntzak dira.

Tratamenduak adin txikikoaren osasun, hezkuntza edotan garapen prozesuan laguntzeko izan beharko du.

Tratamendu hauek hartuko dira kontuan: fisioterapia terapeutiko, terapia okupazionala, osteopatia, logopedia, psikomotrizitatea, ikasgai tronkaletara bideratutako errefortzu akademikoa eta hezkuntza, osasun edota gizarte zerbitzuetako babes sistemetak profesionalen proposatutako tratamenduak.

*Hirugarrena. Onuradunak.*

Adin txikiko baten tutoretza bere gain duten Astigarragan erroldatutako pertsonak.

*Laugarrena. Baldintzak.*

1. Eskatzailea Astigarragan erroldatua egotea (baldintza hau ofizioz egiaztatuko da).

2. Udalarekin zorrak ez edukitzea (baldintza hau ofizioz egiaztatuko da).

3. Arrazoi beragatik dirulaguntza bat izanez gero, jasotako dirulaguntzen batuketak ezingo du tratamenduaren gastu osoa gainditu.

4. Tratamenduaren hartzailea adin txikikoa izatea (0-17 urte).

**AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA**

**Servicios Sociales**

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Astigarraga, por delegación del Alcalde mediante Decreto 774/2019, en sesión celebrada el día 31 de enero de 2023, ha adoptado el acuerdo de aprobar las bases específicas que han de regir las subvenciones de 2023 para atender las necesidades derivadas de la salud, educación y desarrollo de las personas menores de edad en general así como la convocatoria pública de las mismas.

*Bases reguladoras de las ayudas económicas para el año 2023 destinadas a atender las necesidades derivadas de la salud, educación y desarrollo de las personas menores de edad en general.*

*Primera. Objeto.*

1. Es objeto de esta bases regular la concesión de ayudas económicas para subvencionar total o parcialmente los gastos de tratamientos que den respuesta a la necesidades de salud, educación o desarrollo de las personas menores de edad.

2. A los efectos del cumplimiento del objeto de las presentes bases, el Ayuntamiento de Astigarraga se servirá de los presupuestos del departamento de Servicios Sociales y del departamento de Euskera y Educación.

*Segunda. Contenido.*

Las ayudas reguladas en estas bases serán ayudas económicas para la financiación de programas de atención individual o grupal destinadas a la atención en centros no concertados y el acceso o la realización de otros programas de integración.

El tratamiento tendrá el fin de ayudar a la persona menor de edad en el ámbito de la salud, educación y/o en su proceso madurativo.

Se considerarán los siguientes tratamientos: fisioterapia terapéutica, terapia ocupacional, osteopatia, logopedia, psicomotricidad, refuerzo académico dirigido a asignaturas troncales y los diferentes tratamientos propuestos por las profesionales de los sistemas de protección; salud, educación y servicios sociales.

*Tercera. Personas beneficiarias.*

Personas empadronadas en Astigarraga que sean tutoras de una menor.

*Cuarta. Condiciones.*

1. Que la solicitante este empadronada en Astigarraga (este requisito se comprobará de oficio).

2. No tener deudas pendientes con el Ayuntamiento (este requisito se comprobará de oficio).

3. En el caso de que exista otra subvención para el mismo motivo, la suma de las subvenciones recibidas no podrá superar el gasto total del tratamiento.

4. Que la persona destinataria del tratamiento sea menor de edad (0-17 años).

5. Profesionalak (osasun, hezkuntza edo/eta gizarte zerbi-  
tuen sistemak) horren beharra adierazi edo preskribitzea.

6. Zerbitzua zentro homologatu batean jasotzea edo/eta  
kolegiatutako profesional autonomoek eskaintzea.

7. Egingo diren saioak justifikatzen dituen aurrekontua iza-  
tea eta dirulaguntza eskaerarekin batera aurkeztea.

*Bosgarrena. Dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa.*

1. Errefortzu akademikora (ikasgai tronkalak) bideratutako  
tratamenduetarako dirulaguntza Euskara eta Hezkuntza departa-  
mentuak kudeatuko du eta 1.0600.480.01.326.00 2023 partida-  
ren kontura onartuko da finantzaketa.

Urteroko eta adin txikiko ezarritako gehienezko muga 400 eu-  
rokoa izango da.

2. Hezkuntza premia berezietara bideratutako tratamendue-  
tarako dirulaguntza Gizarte Zerbitzuen departamentuak kudeatuko  
du eta 1.0800.480.01.231.10 2023 partidaren kontura onartuko  
da finantzaketa.

Urteroko, adin txikiko ezarritako gehienezko muga 750 euro-  
koa izango da.

3. Adin txikiko berdinarentzat bi laguntza lerroak eskatzen  
diren kasuetan, bi laguntza lerroetatik jasotzen den kantitateak  
ezin du 850 euroko muga gainditu.

4. Diru laguntzak ezingo dira oinarri hauetan ezarritakoa ge-  
hienezko zenbatekotik gorakoak izan, ezta tratamenduaren kostu  
errealetik gorakoak ere.

5. Bi laguntza lerroak bateragarriak dira.

6. Dirulaguntza tratamendu bat edo gehiagoren kostua or-  
daintzeko izango da.

7. Osasun, hezkuntza edo beste sistemek tratamendua hau  
eskaintzekotan, dagokion sistemako eskaera egina izan behar du  
dirulaguntza honen eskatzaileak.

*Seigarrena. Dirulaguntzaren zenbatekoa baloratzeko irizpi-  
deak.*

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa publikatua dagoen Gizarte  
Larrialdietarako Laguntzen (GLL) azken Aginduan oinarrituta buru-  
tuko da.

2. Nolanahi ere, laguntza emateko orduan, kontuan hartuko  
da aurrekontuan dirurik ba ote dagoen.

*Zazpigarrena. Eskaera aurkezteko tokia, epea eta dokumen-  
tazioa.*

7.1. Dirulaguntza eskatzeko tokia eta epea:

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzen eskaerak aur-  
keztu ahal izango dira deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argi-  
taratzen den biharamunetik hasita, 2023ko abenduaren 31a arte.

Eskaerak auzeratu ahal izango dira telematikoki (<http://astigarraga.eus/eu/tramiteak>) edo Astigarragako udaletxeko erregis-  
troan aurkezteko, baita Administrazio Publikoen Administrazio Pro-  
zedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen  
dituen lekuetan ere.

7.2. Datuen bitartekotza plataformatik zerbitzuak eskatze-  
a (Nisae):

Astigarragako Udalak, Nisaeren Nodoaren bidez, beharrezkoak  
diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek ad-  
ministrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elka-  
rreingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, bal-  
din eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez  
bada berariaz; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak  
aurkeztu beharko ditu.

Administrazio publikoen arteko datu bitartekaritzarako oinarria  
urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluan zehazten da, non

5. La declaración o prescripción de la necesidad por parte de  
la profesional (sistema de salud, educación y/o servicios sociales).

6. Recibir el servicio en un centro homologado y/o de pro-  
fesionales colegiados que trabajen en régimen de autónomos.

7. Disponer del presupuesto de las sesiones que se reali-  
zarán y entregarlo junto a la solicitud de subvención.

*Quinta. Límite o cuantía máxima de la subvención.*

1. La ayuda económica destinada a la financiación de trata-  
mientos de refuerzo escolar (asignaturas troncales) lo gestionará  
el departamento de Euskara y Educación y la financiación se efec-  
tuará con cargo a la partida 1.0600.480.01.326.00 2023.

El límite anual máximo establecido por menor será de 400  
euros.

2. La ayuda económica destinada a la financiación de trata-  
mientos de necesidades educativas especiales lo gestionará el  
departamento de Servicios Sociales y la financiación se efectuará  
con cargo a la partida 1.0800.480.01.231.10 2023.

El límite anual máximo establecido por cada menor será de  
750 euros.

3. En el caso de que se soliciten las dos líneas de ayudas  
para una misma menor, la cantidad percibida de estas dos líneas  
no podrá superar la cantidad de 850 euros.

4. Las ayudas económicas concedidas no podrán superar  
las cuantías máximas establecidas en estas bases, ni exceder del  
coste real del tratamiento.

5. Las dos líneas de la ayuda son compatibles.

6. La subvención esta dirigida a sufragar el coste económico  
de uno o más tratamientos.

7. En caso de que los sistemas de salud, educación u otros  
ofrezcan este servicio, la solicitante de esta prestación debe de  
tener hecha la solicitud correspondiente del sistema que corres-  
ponda.

*Sexta. Criterios para la valoración de la cuantía de la sub-  
vención.*

1. La cuantía de la subvención se calculará según la última  
Orden publicada para las Ayudas de Emergencia Social (AES).

2. En cualquier caso, la disponibilidad presupuestaria será  
condición para el otorgamiento de las correspondientes ayudas.

*Séptima. Lugar, plazo y presentación de solicitudes.*

7.1. Lugar y plazo para la presentación de solicitudes:

Las solicitudes de las ayudas previstas en esta convocatoria  
podrán presentarse desde el día siguiente al de la publicación de  
la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, hasta el 31 de  
diciembre de 2023.

Las solicitudes podrán presentar por vía telemática (<http://astigarraga.eus/es/tramites>) o en el registro del Ayuntamiento de  
Astigarraga, así como en los lugares a que se refiere el artículo  
16.4 de la Ley 39/2015, de Procedimiento Administrativo Común  
de las Administraciones Públicas.

7.2. Solicitar servicios mediante la plataforma de interme-  
diación de datos (Nisae):

El Ayuntamiento de Astigarraga mediante el Nodo de Nisae, va  
a realizar las comprobaciones y consultas necesarias de los datos  
de las personas interesadas que obren en poder de la Administra-  
ción. Es por ello que se dejarán de solicitar datos que puedan ser  
interoperables, siempre y cuando la persona interesada no se  
oponga de forma expresa al uso de los mismos, en cuyo caso, de-  
berá aportar los datos o documentos correspondientes.

El fundamento para la intermediación de datos entre las Ad-  
ministraciones Públicas se concreta en el artículo 28 de la Ley

aitortzen baita herritarrek eskubidea dutela ez aurkezteko edozein administrazio egindako dokumentuak, jatorrizko dokumentuak, ezarri beharrekoa den araudiak eskatzen ez dituen datuak edo dokumentuak, edo interesdunok aurretik edozein administrazio emandakoak.

Era berean, 40/2015 Legearen 155. artikulua adierazten duena gogora ekarriz, administrazioek elkarri lagundu behar diote datu-trukean, eta herritarrei buruzko datuak haien esku daudenak, eman behar dituzte.

Horren ildotik, Astigarragako Udalak honako baldintza hauek egiaztatuko ditu deialdi honetako dirulaguntza eskuratu ahal izateko, Nisaeren, datuen eta beste administrazio batzuen bitartekari-tzarako plataformaren zerbitzuen bidez:

a) Bizikidetzaren unitateko kide guztien Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena, eskabidea egin aurreko zergaldiari dagokiona.

b) Bizikidetzaren unitateko kide guztien zega informazioa.

c) Errenta aitorpena aurkezteko obligaziorik ez badago:  
– Foru Ogasunak emandako ziurtagiria, errenta aitorpena aurkeztera behartuta ez daudela adierazten duena.  
– Eskabidea egin aurreko zergaldiaren urteari dagozkion dirusarreraren agiriak (nominak, pentsioak, dirulaguntzak...).

Ezin bada datuen artekaritza plataformen bidez edo hartarako gaitutako bestelako sistema elektronikoen bidez kontsulta egin, salbuespen moduan eskatu ahal izango zaio eskatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

### 7.3. Eskariarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Adin txikikoaren ordezkaria den eskatzailearen Nortasun Agiri Nazionala edo AIZ-aren fotokopia.

b) Ahaidetasunaren edo harremanaren egiztagiria (familia liburua, tutoretza eta abar).

c) Adin txikikoak tratamendu beharra duela ziurtatzen duen txostena edo agiria. Osasun edo Hezkuntza sistemako profesional batek egindakoa.

d) Tratamenduaren aurrekontua.

e) Dirulaguntza kobratzeko erabiliko den kontuaren bankuko frogagiria edo libretaren fotokopia (kontuak eskatzailearen izenean egon behar du).

f) Bizikidetzaren unitateko kide guztiek dituzten kontu korrante guztien azken sei hilabeteko mugimenduak.

g) Zerga informazioan agertzen ez den ondasun oro aitortu beharko du eskatzaileak; horretarako beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztuz.

Momentuko ondasunak argitzeko beharrezkoa den bestelako dokumentuak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari eta honen bizikidetzaren unitateko pertsoneri (zinpeko aitortza, barne).

### Zortzigarrena. Dirulaguntzaren ordaintzea.

Dirulaguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da. % 70 dirulaguntza ematen den momentuan ordainduko da, eta gainerako % 30a, dirulaguntza zuritu ondoren.

Horretarako, laguntzaren onuradunak jatorrizko fakturak aurkeztu behar ditu diruz lagundu den tratamendua amaitu eta hilabeteko epean.

39/2015, de 1 de octubre, donde se reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que hayan sido elaborados por cualquier Administración, documentos originales, datos o documentos no exigidos por la normativa reguladora aplicable o que hayan sido aportados anteriormente por el interesado a cualquier Administración.

Asimismo, existe el deber de las Administraciones de colaborar, tal y como indica el artículo 155 de la Ley 40/2015 en el entorno del intercambio de datos, debiendo facilitar los datos relativos de la ciudadanía que obren en poder de estas.

En este sentido, el Ayuntamiento de Astigarraga va a verificar los siguientes requisitos para acceder a la subvención de esta convocatoria desde los servicios de la plataforma de intermediación de datos y otras administraciones, Nisae:

a) Declaración del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al periodo impositivo vencido inmediatamente anterior a la fecha de la solicitud de todas las personas de la unidad convivencial.

b) Información fiscal de todas las personas de la unidad convivencial.

c) Si no hay obligación de presentar declaración de la renta:  
– Certificado expedido por la Hacienda Foral de no estar obligado/as a presentar declaración de la renta.

– Documentos correspondientes a los ingresos habidos en el ejercicio impositivo vencido inmediatamente anterior a la fecha de solicitud (nóminas, pensiones, subvenciones...).

En el caso en que no fuera posible la realización de la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, se podrá solicitar excepcionalmente a la persona solicitante que presente la documentación en cuestión.

### 7.3. Documentación complementaria a presentar:

a) Fotocopia del Documento Nacional de Identidad o NIE de la persona tutora de la menor; la cual es solicitante de la ayuda.

b) Documento acreditativo del parentesco o relación (libro de familia, tutela, etc...).

c) Informe o documento acreditativo de la necesidad de tratamiento. Realizado por una profesional de sistema de Educación y/o Sanidad.

d) Presupuesto del tratamiento.

e) Justificante bancario o fotocopia de la libreta de la cuenta donde se desea percibir la ayuda (la cuenta debe estar a nombre de la persona solicitante).

f) Los movimientos de cuenta de los últimos seis meses de todas las cuentas que posean todas las personas de la unidad convivencial.

g) La solicitante deberá declarar todo patrimonio que no refleje el informe fiscal; debiendo entregar para ello los documentos necesarios.

Se podrá solicitar a la persona solicitante y a las personas de su unidad convivencial que presenten la documentación necesaria para aclarar el patrimonio que poseen (incluida la declaración jurada).

### Octava. Pago de Subvención.

El pago de la subvención se realizará en dos partes. El 70 % se abonará en el momento de la concesión y el 30 % restante, previa justificación de la subvención.

Para lo cual, la persona beneficiaria deberá de presentar las facturas originales en el plazo de un mes a partir de finalizar el tratamiento objeto de subvención.

*Bederatzigarrena. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak.*

1. Laguntza eskaerak alkatetzako dekretu bidez ebatziko dira, dagokion sailak baldintzak betetzen direla frogatu eta eskaerak balioztatu ondoren.

Eskaerak ebazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek zilegi dute dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsizat jotzea.

2. Dirulaguntza eman zaiola jakinarazten dion agiria edo jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean berariaz eta idatziz uko egiten ez badio dirulaguntzari, onartu egin duela ulertuko da, bai deialdian zein ebazpenean ezartzen diren baldintza ekonomikoei dagokienez, bai gainerako baldintza edo alderdi guztiei dagokienez.

*Hamargarrena. Ez betetzea eta dirua itzultzea.*

Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko erregelamenduaren 5. artikuluan xedatutakoari jarraiki, deialdi honetan ezarritako eskakizunak, aplikatu daitezkeen gainerako arauak edo dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezik, ez betetze espedienteak ireki, eta dirulaguntzak ezeztatu eta itzuli egin beharko dira, legezko korrituekin batera.

Ez betetze espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta hala dagokionean, emandako dirulaguntza alde edo osorik itzularazteko ebazpenak, laguntza onartu duen organoak du.

*Hamaikagarrena. Azken xedapenak.*

Laguntza hauek izaera administratiboa dute, eta administrazioarekiko auzitegiei dagokie udalak kudeatzen dituen dirulaguntzekiko jurisdikzio-eskumena.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntza eskaerak Astigarragako Udala ahalbidetzen dute beharrezkoa duen informazioa eskatzera, baldintzen betetzea eta mantentzea bermatzeko, bai beste administrazio edo erakunde publikoei, bai dagokion entitateei.

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sor daitezkeen edozein zalantza dirulaguntza kudeatu duen sailak ebatziko du (euskara eta hezkuntza edo gizarte-zerbitzuak).

Oinarri hauetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietan Astigarragako Udaleko dirulaguntzak emateko erregelamenduaren, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta haren garapenerako araudien arabera ere arautuko dira. Eta horien osagarri, administrazio zuzenbideko gainerako legeak aplikatuko dira, edo horiek izan ezean, zuzenbide pribatukoak.

Astigarraga, 2023ko otsailaren 1a.—Xabier Urdangarin Lasa, alkatea. (807)

*Novena. Órganos competentes para la tramitación y resolución del procedimiento.*

1. Las solicitudes de ayuda se resolverán por decreto de alcaldía, previa comprobación de cumplimiento de las condiciones para ser persona beneficiaria y valoración de las solicitudes por parte del departamento correspondiente.

El plazo máximo para resolver las solicitudes será de seis meses. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado resolución alguna, las personas interesadas podrán entender desestimada por silencio administrativo la solicitud de concesión.

2. Si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención, no se renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada, tanto en los términos económicos que se establezcan en la convocatoria como en la resolución, como en todos los demás requisitos o aspectos.

*Décima. Incumplimiento y reintegro.*

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 del reglamento de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga, el incumplimiento de los requisitos establecidos en la presente convocatoria, de las demás normas aplicables o de las condiciones impuestas en la resolución de concesión, dará lugar a la incoación de expediente de incumplimiento y a la revocación y reintegro de las subvenciones, junto con los intereses legales.

La competencia para incoar y resolver los expedientes de incumplimiento, así como, en su caso, la resolución de reintegro de la subvención concedida parcial o totalmente, corresponderá al órgano concedente.

*Undécima. Disposiciones finales.*

Estas ayudas tienen naturaleza administrativa, correspondiendo a los Tribunales Administrativos la competencia jurisdiccional sobre las subvenciones gestionadas por el Ayuntamiento.

Las solicitudes de subvención reguladas en estas bases permitirán al Ayuntamiento de Astigarraga solicitar la información necesaria para garantizar el cumplimiento y mantenimiento de los requisitos, tanto a otras administraciones o entidades públicas como a las entidades correspondientes.

Cualquier duda que pueda surgir en relación a la interpretación de estas bases será resuelta por el departamento (euskara y educación o servicios sociales) que ha gestionado la subvención.

En todo lo no previsto o recogido en las presentes bases, se regirá por lo previsto en el reglamento de concesión de subvenciones del Ayuntamiento de Astigarraga, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y por su normativa de desarrollo. Y, supletoriamente, se aplicarán las demás leyes de derecho administrativo o, en su defecto, las de derecho privado.

Astigarraga, a 1 de febrero de 2023.—El alcalde, Xabier Urdangarin Lasa. (807)